



**A K T A**

# Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2007ko urriaren 30a, asteartea

**LEKUA:** Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa

**DEIALDIA:** Lehena    **HASIERA-ORDUA:** 19:04    **AMAIERA-ORDUA:** 20:23

**BERTARATUAK:** Alkatea

Jon Redondo Lertxundi,

**Zinegotziak**

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Joseba Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez de Gereño, Oier Sarobe Eskudero, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Eugenio Cotado Iturain (11. puntutik aurrera) eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa

**Idazkari-kontuhartzailea**

Jon Carrera Jauregi

## **Aztergai zerrenda**

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarrak 2007ko irailaren 25ean egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2006ko ekitaldi ekonomikoari dagokion aurrekontuaren Kontu Nagusia.
- 3.- Onartzea, egoki bada, urtez urteko gastu izaera ematea Iturriaga jauregiaren errehabilitazio lanen eta Euskal Herriko Done Jakue Bideari buruzko interpretazio zentroa sortzeko proiektu museografikoaren finantzazioari.



- 4.- Onartzea, egoki bada, konpromisozko kredituak Iturriaga jauregiaren errehabilitazio lanak eta Euskal Herriko Done Jakue Bideari buruzko interpretazio zentroa sortzeko proiektu museografikoa finantzatzeko.
- 5.- Onartzea, egoki bada, 2008ko auto-taxi zerbitzuaren tarifen gehikuntza.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren eta Arkupe merkatari elkartearen artean izenpetuko den akordio markoa, Orioko herriko merkataritza biziberritzeko, eta alkateari ahalmena ematea akordioa izenpetzeko Orioko Udalaren izenean.
- 7.- Onartzea, egoki bada, bide publikoaren erabilera eta bidearen okupazioa mahai eta aulkiekin arautzen duen Udal Ordenantzaren aldaketa.
- 8.- Onartzea, egoki bada, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzailearen buru Jesus Rodriguez Pousa zinegotzi karguaren ardurak betetzeko liberatzea, dedikazio partzialeko erregimenean (lan saio osoaren 1/3).
- 9.- Onartzea, egoki bada, EAE-ANV udal taldeak aurkeztutako mozioa, 23 militante abertzaleren kartzelatzea dela eta.
- 10.- Onartzea, egoki bada, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunari (azaroak 25) buruzko Adierazpen Instituzionala
- 11.- Izendatzea, egoki bada, Udalerri Euskaldunen Mankomunitaterako (UEMA) udal ordezkari bat .
- 12.- Oier Sarobe Escuderok Udaleko zinegotzi karguari uko eginez aurkeztu duen idatziaren berri ematea.
- 13.- Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

### **1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2007KO IRAILAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Karmele Belaskok hartzen du hitza eta, EAE-ANVren izenean, honako hau adierazten du: bere talde politikoak ez duela aipatutako akta onartuko, ez dutelako euskarazko zirriborroa jaso. Adierazten du, indarrean dauden udal ordenantzen arabera, akten zirriborroak elebitan idatzi behar direla.

Alkateak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: zirriborroa euskaraz banatu ez bada, horren arrazoa hau izan dela: euskara teknikariak ez duela denborarik izan itzulpena egiteko. Adierazten du, aktaren zirriborroa euskaraz prest dagoen bezain pronto, udalbatzarreko kide guztiek jasoko dutela.



Karmele Belaskok hartzen du berriz hitza eta honako hau adierazten du: alkatearen arrazoiak ez zaizkiola egokiak iruditzen, kontuan hartuta Udaleko idazkaritzan badaudela langileak hizkuntz perfil egokia dutenak akten zirriborroak euskaraz idazteko.

Oier Sarobek hartzen du hitza eta, EB-B/Aralarren izenean, honako hau adierazten du: bere talde politikoak ere ezin duela onartu aktaren zirriborroa, euskaraz ez dagoelako, zeren eta, euskararen erabilera arautzen duen udal ordenantzaren arabera, akten zirriborroak ele bietan idatzi behar baitira.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU BOZKETA BIDEZ**, eta alkateak kalitatezko botoa erabilia [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV), Sarobe (EB-B/Aralar) eta Iturain (EB-B/Aralar), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

**ONARTZEA**, Udalbatzarrak 2007ko irailaren 25ean egindako ohiko bilkurako akta.

## **2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2006KO EKITALDI EKONOMIKOARI DAGOKION AURREKONTUAREN KONTU NAGUSIA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Indarrean dagoen legedian ezarritakoa betez, jendaurrean jarri dira Udalaren 2006ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak eta egoera kontableak eta 2006ko aurrekontuaren likidazioa, dagozkien egiaztagiriek eta Kontuen Batzorde Bereziaren txostenarekin. Agiri horiek jendaurrean egon behar dute 15 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, nahi duenak aztertzeke eta egoki iruditzen zaizkion erreparatu edo oharrak idatziz egiteko.

Iragarkia 2007ko maiatzaren 10eko aldizkari ofizialean argitaratu zen (91. zenbakian) eta, beraz, jendaurreko epea —eta, hortaz, erreparatu edo oharrak aurkezteko— 2007ko maiatzaren 11tik 28ra artekoa izan zen, eta epe horretan inork ez zuen erreparatu edo oharrak aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Sarobe (EB-B/Aralar), Iturain (EB-B/Aralar) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV) eta Zinkunegi (EAE-ANV), guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO**]:



**ONARTZEA** Udalaren 2006ko ekitaldi ekonomikoari dagokion aurrekontuaren Kontu Nagusia, Aurrekontu Propioak eta Orio Garatzen SL udal sozietate publikoaren aurrekontuak osatzen dutena.

### **3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, URTEZ URTEKO GASTU IZAERA EMATEA ITURRIAGA JAUREGIAREN ERREHABILITAZIO LANEN ETA EUSKAL HERRIKO DONE JAKUE BIDEARI BURUZKO INTERPRETAZIO ZENTROA SORTZEKO PROIEKTU MUSEOGRAFIKOAREN FINANTZAZIOARI.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hazienda batzordeak 2007ko urriaren 29an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Sarobe (EB-B/Aralar), Iturain (EB-B/Aralar) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV) eta Zinkunegi (EAE-ANV), guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO**]:

**ONARTZEA** urtez urteko gastu izaera ematea Iturriaga jauregiaren errehabilitazio lanen eta Euskal Herriko Done Jakue Bideari buruzko interpretazio zentroa sortzeko proiektu museografikoaren finantzazioari eta Orioko Hondartzako UE2 eta AIU3 eremuetan babes ofizialeko 36 etxebizitza eta 39 udal etxebizitza tasatu eraikitzeko obren finantzazioari.

### **4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, KONPROMISOZKO KREDITUAK ITURRIAGA JAUREGIAREN ERREHABILITAZIO LANAK ETA EUSKAL HERRIKO DONE JAKUE BIDEARI BURUZKO INTERPRETAZIO ZENTROA SORTZEKO PROIEKTU MUSEOGRAFIKOA FINANTZATZEKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hazienda batzordeak 2007ko urriaren 29an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Sarobe (EB-B/Aralar), Iturain (EB-B/Aralar) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV) eta Zinkunegi (EAE-ANV), guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO**]:

**ONARTZEA** konpromisozko kredituak Iturriaga jauregiaren errehabilitazio lanak eta Euskal Herriko Done Jakue Bideari buruzko interpretazio zentroa sortzeko proiektu museografikoa finantzatzeko eta Orioko Hondartzako UE2 eta AIU3 eremuetan babes



ofizialeko 36 etxebizitza eta 39 udal etxebizitza tasatu eraikitzeko obrak finantzatzeko.

	2007	2008	2009	Guztira
Hondartzako etxebizitza tasatuak	1.232.838	1.604.042	342.093	3.178.973
Hondartzako babes ofizialeko etxeb.	778.193	950.000	942.295	2.670.488
Iturriaga jauregia eraberritzeko obrak eta proiektu museografikoaren exekuzioa	900	528.046	525.954	1.054.900
				<b>6.904.361</b>

#### 5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2008KO AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFEN GEHIKUNTZA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hazienda batzordeak 2007ko urriaren 29an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU AHO BATEZ** [guztira, **HAMAR BAIEZKO BOTO**]:

**ONARTZEA** 2008ko auto-taxi zerbitzuaren tarifen gehikuntza, Urola Kostako Taxien Eskualdeko Batzordearen alde aurreko ontzat emanarekin, Taxiaren Gipuzkoako Elkartearen presidente Emilio Fernandez Fidalgo eskatutako termino beretan (hitzez hitz):

PROPUESTA TARIFA URBANA 2008					
TARIFA1*			TARIFA 2**		
Tarifa Mínima	Kilómetro recorrido	Hora de espera	Tarifa Mínima	Kilómetro recorrido	Hora de espera
4.3242	0,9228	17,62	5,1474	1,4718	27,70

**La Tarifa Mínima incluye 1,5 Km. de recorrido y cinco minutos de espera.**

(\*) Esta tarifa será aplicable los días laborables entre las 07:00 horas y las 21:00 horas

(\*\*) Esta tarifa será aplicable todos los días, desde las 21:00 horas hasta las 07:00 horas. Se aplicará igualmente la Tarifa II desde las 07:00 horas a las 21:00 horas los domingos y los días festivos fijados en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados.



**6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN ETA ARKUPE MERKATARI ELKARTEAREN ARTEAN IZENPETUKO DEN AKORDIO MARKOA, ORIOKO HERRIKO MERKATARITZA BIZIBERRITZEKO, ETA ALKATEARI AHALMENA EMATEA AKORDIOA IZENPETZEKO ORIOKO UDALAREN IZENEAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Euskara, Hezkuntza eta Merkataritza batzordeak 2007ko urriaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU AHO BATEZ** [guztira, **HAMAR BAIEZKO BOTO**]:

**ONARTZEA** Orioko Udalaren eta Arkupe merkataritza elkartearen artean izenpetuko den akordio markoa, Orioko herriko merkataritza biziberritzeko, eta alkateari ahalmena ematea akordioa izenpetzeko Orioko Udalaren izenean

**7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BIDE PUBLIKOAREN ERABILERA ETA BIDEAREN OKUPAZIOA MAHAI ETA AULKIEKIN ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Obra eta Zerbitzuetako batzordeak 2007ko urriaren 18an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU AHO BATEZ** [guztira, **HAMAR BAIEZKO BOTO**]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** bide publikoaren erabilera eta bidearen okupazioa mahai eta aulkiekin arautzen duen Udal Ordenantzaren aldaketari

2.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua ezarritakoa betez, ordenantzaren aldaketa **JENDAURREAN JARTZEA**, interesatuek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten Udalbatzarraren aurrean, 30 laneguneko epean. Aldaketaren testua Udaleko idazkaritzan dago ikusgai, interesatu guztien eskura, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era bitartean. Epe horren barruan ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu, udal ordenantzaren aldaketa behin betikoz onartutzat joko da.

**8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, OBRA ETA ZERBITZUETAKO BATZORDE INFORMATZAILEAREN BURU JESUS RODRIGUEZ POUSA ZINEGOTZI KARGUAREN ARDURAK BETETZEKO LIBERATZEA, DEDIKAZIO PARTZIALEKO ERREGIMENEAN (LAN SAIO OSOAREN 1/3).**



Udalak alkatearen proposamenearen berri jakiten du.

Oier Sarobe zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: bere talde politikoa ez dagoela Jesus Rodriguez zinegotziak bere ardura politikoa dedikazio partzialeko erregimenean betetzearen kontra; baina ezin diotela aldeko botorik eman liberazio proposamenari, ez dakitelako zein egoeratan dagoen Jesus Rodriguez zinegotzia lanari dagokionez.

Jesus Rodriguez zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du Ogasunak baduela bere lan egoeraren berri, informazio hori sekretupekoa dela eta, beraz, ez duela udalbatzarrean horri buruz hitz egingo.

Joseba Goiburu zinegotziak (EAE-ANV) hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: bere talde politikoa kontrako botoa emango duela, Rodriguez jauna lehengo egoera berean dagoelako. Gainera, eranstu du politikako jardunak borondatezkoa izan behar duela eta, beraz, ordainsaririk gabea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU BOZKETA BIDEZ**, eta alkateak kalitatezko botoa erabilita [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV), Sarobe (EB-B/Aralar) eta Iturain (EB-B/Aralar), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

**ONARTZEA** Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzailearen buru Jesus Rodriguez Pousa zinegotzi karguaren ardurak betetzeko liberatzea, dedikazio partzialeko erregimenean (lan saio osoaren 1/3) eta ordainsari orokorren 25. mailarekin.

## **9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAE-ANV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, 23 MILITANTE ABERTZALEREN KARTZELATZEA DELA ETA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

*Espaniar Gobernuak eta PSOEek euskal independentismoaren aurkako eraso bortitza gauzatu dute 23 militante abertzale atxilotuta. Euskal Herrian gatazka gainditzeko aukerari ezezko borobila esan zion PSOEek eta orain errepresioa bururaino eramaten du, oinarrizko eskubide guztiak urratuz, frankismoaren garai beltzetan bezala, Euskal Herriaren independentziaren alde lan egiten duten sektore ororen aurka.*

*Espaniar Estatuan ez dago demokraziarik, Euskal Herriarentzat ukazioa eta inposizioa besterik ez dago. Oso agerikoa da, oso argi dago. Ez da diskurtso epeletarako garaia, ez da salaketa hutsean geratzeko garaia, ez dago aitzakiarik.*



*Independentismoa kolpatzen dute baina Euskal Herri osoari egiten diote eraso. Herri honen oinarrizko eskubideak urratzen dituzte, herri honi etorkizuna ukatzen diote eta gatazka inposatu. Honen aurrean abertzale eta demokrata den orok jarrera argia hartu behar du. Espainiar konstituzioari ez, herri honi ukazioa besterik ez dakarrelako, irtenbide faltsuei ez, herri honek demokrazia eta bakezko etorkizuna merezi duelako.*

*Euskal Herriarentzako demokrazia eta askatasuna helburu dugunok aurrera egin behar dugu. Eraso guztien gainetik herri honentzako marko demokratiko bat eraiki behar dugu, gatazka behingoz eta betirako gainditzeko aukera emango digun eskenatoki demokratiko bat Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroarentzako, herritar guztientzako erabakitzeko eskubidea bermatua izango duena, proiektu politiko guztiei ateak irekiko dizkiona, baita herri honetan independentziaren alde diren herri sektore zabalei ere.*

*Herri gisa aurrera egiten jarraitu dezagun konpromisoak hartzea ezinbestekoa zaigu. Bizi dugun egoera latzak urratsak ematea eskatzen digu eta horretara goaz.*

*Hori horrela honako mozioa aurkezten dugu, udal osoko bilkurak eztabaida eta onar dezan:*

- 1. Udal honek Espainiar estatuari eta PSOERI mezu zuzena helarazten dio: Euskal independentismoa eta Euskal Herriaren aurkako erasorik ez. Hortaz, udal honek urriaren 4an Espainiako poliziak Seguran egindako atxiloketak irmoki salatzen ditu eta kartzelaratutako 19 militante abertzaleen berehalako askatasunarekin batera independentismoaren aurkako kriminalizazioa eta jazarpenari amaiera ematea exijitzen du.*
- 2. Udal honek Espainiar Estatuan demokraziarik ez dagoela eta euskal herritarren eskubideak egunero urratuak direla salatzen du. Horregatik errepresioaren aurrean jarrera tinkoa hartuko du bere ondorio guztiei aurre egiteko prestutasunez.*
- 3. Udal honek argi adierazi nahi du: herri honek pairatzen duen gatazkaren irtenbidea ez dago Espainiar Konstituzioan edo Estatutuen erreforman, ez dago sasi-irtenbiderik. Herri honek behar duena marko demokratiko bat da. Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan bizi garen herritarroi gure etorkizuna libreki eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea zor zaigu. Proiektu politiko guztiak, independentzia barne, bideragarriak egingo dituen marko batetan dago gatazkaren konponbidea.*
- 4. Udal honek eraso hauen aurrean deituak izan diren mobilizazio guztietan parte hartzeko deia luzatzen die herritarrei.*

*Euskal Herrian, 2007ko urrian*





Segidan, idazkariak EAJ eta EA talde politikoek aurkeztu duten mozio alternatiboa irakurtzen du. Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

*Orioko Udalak*

1.- Aldarrikatu nahi du alderdi eta irizpide politiko guztien politikarako eskubidea; eskubide hori guztiontzat baldintza berdinetan, Euskal Herriko gizarte eta politika mailako jardueratan aritzeko. Hortaz, askatasun eta oinarrizko eskubideen defentsak bermea behar du, norbanakoen irizpide politikoekiko eta pertsonen gertutasunarekiko egoeren gainetik.

2.- Halaber adierazi nahi du, demokratikoa den gizarte orok ziurtatu behar duela egitasmo horren aldeko lana baldintza berdinetan dela gauzatzen.

3.- Hortaz, deia luzatu nahi dio Udalak Estatuko Gobernuari, berari dagozkionetan, eta premiazko erara, bertan behera utzi dezan Alderdi Politikoen Legea, 2002ko ekainaren 27an onartua, aipatu printzipioen aurka egiten baitu bete-betean.

4.- Batze, oinarrizko eskubidea, bilerak antolatuta, gauzatzeagatik atxilotuak dituzten pertsonak, behar dituzte aske utzi.

5.- Udalak, orobat, bere konpromisoa sinatu nahi du herriaren gatazka politikoa gainditu eta normalkuntza ekarriko duten egitasmoen alde.

Azkenik, idazkariak EB-B/Aralar talde politikoak aurkeztu duen mozio alternatiboa irakurtzen du. Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

1.- Orioko Udalak gogor gaitzesten du Batasunaren Zuzendaritzako kideen atxiloteta. Haiekiko eta beren senideekiko elkartasuna agertzen du eta haien berehalako askatasuna eskatzen.

2.- Orioko Udalak militante politikoaren jazarpena demokraziaren aurkako erasotzat jotzen du, militante horien joera politikoa eta jazarpenaren egilea edozein dela ere. Biltzeko eskubidea delitutzat hartzeari onartezina deritzogu.

3.- Orioko Udalak alderdien legea bertan behera uzteko esijitzen die estatu espainiarreko gobernuari eta bertako organo legegileei.

Joseba Goiburu zinegotziak (EAE-ANV) hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: bere talde politikoak hiru mozioak onartzearen aldeko botoa emango duela; bestalde, dio, EAJk eta EAK aurkeztutako mozio alternatiboaren 3. puntuari dagokionez, talde politiko horiek, estatuko gobernuari aipatutako legea bertan behera uzteko eskatzeaz gain, gehiago ere egin dezaketela: esate baterako, Hauteskunde Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 182.2 artikuluan ezarritako prozedura erabiltzea.



Bestalde, Joseba Goiburu zinegotziak proposatzen du honako hau eranstea EAJk eta EAK aurkeztu duten mozio alternatiboaren 4. puntuan: (...) *atxilotuak dituzten pertsonak behar dituzte aske utzi berehala.*

Alkateak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: mozio alternatiboaren testua bere horretan onartu behar dela; bestalde, dio ez zaiola koherentea iruditzen EAE-ANV taldearen jarrera, estatu mailako lege baten artikulua bat aplikatzea eskatuz.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV) eta Zinkunegi (EAE-ANV), guztira **HIRU ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**; abstentzio botoak: Sarobe (EB-B/Aralar) eta Iturain (EB-B/Aralar), guztira **BI ABSTENTZIO BOTO**]:

**EZ ONARTZEA** EAE-ANV udal taldeak aurkeztu duen mozioa, 23 militante abertzalaren kartzelatzea dela eta.

Bestalde, Udalbatzarrak honako hau **ERABAKITZEN DU BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV) eta Zinkunegi (EAE-ANV), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Sarobe (EB-B/Aralar), Iturain (EB-B/Aralar) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO**]:

**ONARTZEA** EAJ eta EA talde politikoek aurkeztu duten mozio alternatiboa, goian jasota dagoen bezala.

Azkenik, Udalbatzarrak honako hau **ERABAKITZEN DU BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV) eta Zinkunegi (EAE-ANV), Sarobe (EB-B/Aralar) eta Iturain (EB-B/Aralar) guztira **BOST ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**; abstentzio botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV) eta Del Hoyo (EAJ-PNV), guztira **LAU ABSTENTZIO BOTO**]:

**ONARTZEA** Ezker Batua-Berdeak/Aralar talde politikoak aurkeztu duen mozio alternatiboa, goian jasota dagoen bezala.

## **10.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNARI (AZAROAK 25) BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Adierazpen instituzionalak honela dio, hitzez hitz:



## EMAKUMEEN INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

*Beste urte batez, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, Orioko Udalak salaketa egin nahi du eta biolentzia matxistaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du, gure Udalerrian ere irauten duen gaitza baita.*

*Jakin badakigu emakumeen kontrako biolentziak kontzientzia kolektiboan sakonki errotutako jokabide-eredu soziokultural batean oinarrituta dagoela. Neska eta mutilak gizarteratzeko modu desberdinean du jatorria non eratzen, igortzen, barneratzen eta adierazten diren generoaren rolak eta estereotipoak, eta, aldi berean, biolentziaren beraren legitimazio sozial eta kultureko prozesuen bidez indartzen den. Biolentzia hori desagerrarazteko, ahal denik eta azkarren eta nahitaez bereizi behar dugu maskulinitatearen eta feminitatearen zenbait ereduren ikasketa emakumeen kontrako biolentzia erabiltzetik eta/edo legitimatzetik, eta, horretarako, berdintasunerako hezkuntzan, berdintasunean oinarritutako harreman afektibo osasuntsuen sustapenean eta pertsona autonomo, aske eta berdinen garapen integralean oinarritutako irtenbideak planteatu behar ditugu.*

*Aurten, neska nerabeen kontrako biolentziazko harremanetan jarri nahi dugu arreta, izan ere, sektore hori sarritan ahazten dugu arlo honetan garatzen ditugun ekimenetan. Gainera, azken azterketek erakusten dutenez, biolentzia sexista jasaten duten emakumeak gero eta gazteagoak dira. Biolentzia hori, besteak beste, beldurraraztearen, eraso fisikoaren edo abusuaren bidez gauzatzen da, baina baita modu finagoen bidez ere, esate baterako, isolamenduaren bidez, txantaje emozionalaren bidez, manipulazioaren bidez, erasoaren bidez, gutxietsiz eta, batez ere, biktima kontrolatuz. Metodo horiek antzematen zailagoak dira neska eta mutil gazteentzat harreman afektiboetan.*

*Horren guztiaren jakitun, Udal honek*

*ONARTU EGITEN DU KONPROMISOA, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, oso eta koordinatua garatzeko, arreta berezia jarriz neska gazte eta nerabeen kontrako biolentzian, beraien partehartzea aintzat hartuta.*

*GONBIT EGITEN DIE hiritar guztiei, eta, bereziki, udalerriko neska eta mutilei azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU AHO BATEZ** [guztira, **HAMAR BAIEZKO BOTO**]:

**ONARTZEA** emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunari (azaroak 25) buruzko adierazpen instituzionala, goian jasota dagoen bezala.



20:00etan Eugenio Cotado zinegotzia (EA) bertaratzen da.

## **11.- IZENDATZEA, EGOKI BADA, UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATERAKO (UEMA) UDAL ORDEZKARI BAT.**

Udalbatzarrak alkatearen proposamenaren berri jasotzen du. Alkateak dio Udalak UEMArako hiru ordezkari izendatzeko eskubidea daukala eta, orain arte, bi ordezkari izendatu ditu: Jon Redondo alkatea bera eta Noemi Ostolaza alkateordea. Alkateak proposatzen du hirugarren ordezkaria Euskara batzordeko burua izatea: Iñaki Iturain.

Iñaki Iturain zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta proposatzen du Udalak UEMArako izendatutako hiru ordezkariak honako hauek izatea: Jon Redondo alkatea, Karmele Belasko zinegotzia eta Iñaki Iturain bera. Iñakik dio bere proposamenak hobeto jasotzen duela Udalaren aniztasuna.

Alkatearen proposamena bozkatzen da eta ez da onartzen [onartzearen aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; onartzearen kontrako botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV), Sarobe (EB-B/Aralar), Iturain (EB-B/Aralar) eta Cotado (EA), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**].

Segidan, Iñaki Iturain zinegotziak aurkeztutako proposamena bozkatzen da eta onartu egiten da [onartzearen aldeko botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV), Sarobe (EB-B/Aralar), Iturain (EB-B/Aralar) eta Cotado (EA) guztira **SEI ALDEKO BOTO**; onartzearen kontrako botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**].

Ondorioz, aurrerantzean, Udalaren ordezkariak UEMAn honako hauek izango dira: Jon Redondo alkatea, Karmele Belasko zinegotzia eta Iñaki Iturain zinegotzia.

## **12.- OIER SAROBE ESCUDEROK UDALEKO ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGINEZ AURKEZTU DUEN IDATZIAREN BERRI EMATEA.**

Udaleko idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du Oier Sarobe Escuderok (EB-B/Aralar hautagaitzako zerrendaburua 2007ko maiatzaren 27ko udal hauteskundeetan, eta zinegotzi hautatua) idatzia aurkeztu duela, Udalbatzarrari zuzendua, eta bertan honako hau adierazten duela: UKO EGITEN DIOLA Orioko Udaleko zinegotzi karguari, arrazoï pertsonalengatik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Entitateen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoko Erregelamenduaren 9.4 artikuluan ezarritako prozedura betez. Idatzian



Oier Sarobek eskatzen dio Udalbatzarrari bere uko egitea onartzea eta ordezkoa izendatzea, Hauteskunde Erregimen Orokorreko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 182 artikuluan eta Toki Ordezkaritzako Karguak ordezkatzeko Hauteskunde Batzorde Zentralak 1991ko uztailaren 19an emandako aginduan ezarritakoaren arabera.

Idazkariak adierazten du, baita ere, M. Luisa Sanchez Etxeberriak, Ezker Batua-Berdeak/Aralar hautagaitzako ordezkaria Hauteskunde Batzorde Probintzialaren aurrean, idatzia aurkeztu duela eta bertan, besteak beste, honako hau adierazten duela: Oier Sarobe Escuderok aurkeztu duen uko egitea ikusita, zerrendako gainerako hautagaiek (5.enetik 11.nera, biak barne) uko egin dietela hautagai zerrendan dauzkaten postuei (idatziari erantsita doaz uko egiteko izenpetu dituzten agiriak). Hori dela eta, M. Luisa Sanchez Etxeberriak, Hauteskunde Erregimen Orokorreko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 182.2 artikulua ezarritako prozedura erabiliz, eskatzen dio Udalbatzarrari EB-B/Aralar hautagaitzako kideen uko egiteak onartzea eta, horren ondorioz, EB-B/Aralar hautagaitzak azken udal hauteskundeetan lortutako zinegotzi akta Iñaki Garcia Aranbarriri egitea (Iñaki Garcia Aranbarriren zinpeko aitortzen bat ere aurkezten du non adierazten duen, Hauteskunde Erregimen Orokorreko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, hautatua izan daitekeela legez eta ez dagoela ezgaitua kargu publiko izateko). Hori guztia dela eta, M. Luisa Sanchez Etxeberriak eskatzen du Iñaki Garcia Aranbarriri Orioko Udaleko zinegotzi izaera aitortzen dion kredentziala emateko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, indarrean dagoen legediak ezartzen duena ikusita eta gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU AHO BATEZ** [guztira, **HAMAIKA BAI EZKO BOTO**]:

1.- **ONARTZEA** Oier Sarobe Escuderok aurkeztu duen EB-B/Aralar hautagaitzako zinegotzi karguaren ukapena, eta jasotzat hartzea M. Luisa Sanchez Etxeberriak udalbatzarrari aurkeztu dion idatzia, goian laburtuta dagoena.

2.- **BIDALTZEA** udalbatzarraren erabaki honen hitzez hitzezko ziurtapena Madrilgo Hauteskunde Batzorde Zentralaren Presidenteari, Iñaki Garcia Aranbarriri Orioko Udaleko EB-B/Aralar hautagaitzako zinegotzi izaera aitortzen dion kredentziala eman dezan, kargu hori betetzeko, hutsik baitago Oier Sarobe Escuderok aurkeztu duen eta Udalbatzarrak onartu dion kargu ukapenagatik. Hori guztia, Hauteskunde Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 182.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

### 13.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Joseba Goiburuk zinegotziak (EAE-ANV) hartzen du hitza eta Noemi Ostolaza alkateordeari galdetzen dio ea San Nikolas 07 jaietako programa Orioko Plaza udal aldizkarian eta Karkara aldizkarian, bietan, argitaratuko den. Noemi Ostolazak erantzuten dio baietz.



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

**Udalbatzarraren ohiko bilkurako akta • 2007/10/30**

Joseba Goiburuk hartzen du hitza eta alkateari adierazten dio iruditzen zaiola Orioko Plaza aldizkariak udal barruko gaiak jorratu beharko lituzkeela bakarrik.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA**

**IDAZKARIA,**